

## IRAGARKIAK

### Beste iragarki ofizial batzuk

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

## 4034

*IRAGARKIA, 2025eko irailaren 16koa, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren Arabako lurralde-ordezkariarena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita Vitoria-Gasteiz udalerrian «Mercedes Benz konpainiaren 220 kV-ko azpiestazioa eragiketa-prozedurara egokitzeko eta kontsumitzailea handitzeko» proiektua.*

Energia elektrikoa ekoizteko, garraiatzeko eta banatzeko instalazioen administrazio-baimenaren prozedurak arautzen dituen martxoaren 31ko 48/2020 Dekretuan ezarritako ondorioetarako, eta Sektore Elektriokoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 53. artikuluan xedatutakoa betez, jendaurrean jartzen da honako proiektu hau:

- Eskatzailea: Red Eléctrica de España SAU (IFK: A85309219).
- Eskaera: aurretiazko administrazio-baimena eta eraikuntzako administrazio-baimena.
- Xedea: Mercedes Benz konpainiaren 220 kV-ko azpiestazioa eragiketa-prozedurara egokitzea eta kontsumitzailearen posizioan azpiestazioa handitzea, hartara eskari elektrikoa segurtasun-baldintzetan hornitzeko.
- Erreferentzia: 01ATY 202500012.
- Tartean dagoen udal-mugartea: Vitoria-Gasteiz (Araba).
- Aurrekontua: 7.072.378 euro.

Horren berri ematen da, guztiek jakin dezaten. Proiektua aztertu ahal izango da Arabako Lurralde Ordezkaritzan (Samaniego kalea 2, Vitoria-Gasteiz) edo Interneteko [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus) webgunean (Energia eta meategiak ataleko proiektuen jendaurreko informazioan: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/energia-meategiak/hasiera/>), eta nahi duenak egokitzen dituen alegazioak aurkeztu ahal izango ditu hogeit eguneko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko irailaren 16a.

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Arabako lurralde-ordezkaria,  
JAVIER AIZPURU OCHOA DE ERIBE.